

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko 2019ko zerga ordaintzeko borondatezko epea

Nik, David López de Arbina Ruiz de Eguinok, Arabako Donemiliagako Udaleko alkate naizen honek,

Jakinarazten dut: 2019ko apirilaren 17tik aurrera ordaindu ahal izango direla, borondatezko epean, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2019ko ordainagiriak.

I. Ordaintzeko epea.

A) Borondatezko epea: 2019ko apirilaren 17tik maiatzaren 20ra.

B) Betearazte aldía: 2019ko maiatzaren 21etik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko tokia eta modua.

A) Banketxeetan helbideraturako ordainketak: aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, helbideratze kontu berbera mantentzen badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Ordaintzeko tokiak:

– Kutxabanken bulegoak.

– Laboral Kutxaren bulegoak.

– “Internetez, Donemiliagako Udalaren web orrian: www.donemiliaga.eus/es/ayuntamiento (Nire ordainketa)”

III. Gomendioak.

Bankuko helbideratzeen altak edo aldaketak, eta helbide aldaketak, gerora jakinarazpenak egiteko, Donemiliagako Udalean izapidetu behar dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Erdoña, 2019ko apirilaren 9a

Alkatea

DAVID LÓPEZ DE ARBINA RUIZ DE EGUINO